

Arabako Foru Aldundiak azalpen panelak jarriko ditu Uribarri-Ganboako urtegiarengatik desagertutako herriak gogorarazteko

Ramiro González diputatu nagusiak iragarri du martxan jarriko direla Memoria Historikoaren gaineko zenbait erabaki

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 4a. Arabako Foru Aldundiak azalpen panelak jarriko ditu Uribarri-Ganboako urtegiaren inguruetan, presa eraiki eta gero osorik edo zati batean ur azpian desagertu ziren herriak gogorarazteko, eta horiek zeuden lekuak adierazteko.

Hala jakinarazi du Ramiro González Arabako diputatu nagusiak Arabako Batzar Nagusietako Lehendakaritza Batzordean, zeinean agerraldia egin baitu Uribarri-Ganboako urtegiarekin loturiko memoria historikoa berreskuratzeari buruz Batzar Nagusietan aho batez onetsitako urtarrilaren 16ko 3/2019 Mozioa betetzearen berri emateko.

Diputatu nagusiak aurreratu du bost panel grafiko ezarriko direla, Garaioko hondartzan, Landako parkean, Mendixurko parke ornitologikoan, Uribarri-Ganboan eta Zuhatzako uhartean. Seinaleak egurrez eginak izango dira, gure lurraldeko beste parke batzuetan dauden panelen estandarrak mantentzeko.

Era berean, eta mozioa betetzeko, Arabako Foru Aldundia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako informazio didaktikoa prestatzen ari da desagertu ziren herriei buruz, hau da, Orenin, Zuhatsu Ganboa, Mendizabal eta Landa; ia-ia biztanlerik gabe geratu zirenei buruz, hala nola Azua, Larrinzar, Urizar eta Garaio, eta beren etxe eta lurren zati handi bat galdu zutenei buruz: Marieta, Mendixur, Langara Ganboa eta Uribarri-Ganboa.

Azkenik, Ramiro Gonzálezek jakinarazi du ekitaldi instituzional bat egingo dela eragindako udalekin. Hartan, “merezitako omenaldia egingo zaie urtegiaren azpian desagertu ziren herriei eta garai hartan haietan bizi zirenei”.

Frankismoa eta martxoaren 3a

Beste alde batetik, diputatu nagusiak iragarri du Arabako Foru Aldundiak zabalduko duela Arabako kuadrilletan Memoria Historikoaren gaineko ‘La herencia de mi abuela’ izeneko dokumentala. Gogora, Memoriaren, Elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin elkarlanean eginda, kontakizun errealista bat da, zorrozki historikoa eta artifiziorik gabea, Espainiako gerra zibilean eta martxoaren 3aren garaian zeuden diktadura latinamerikarretan egindako Gizateriaren aurkako delituen ingurukoa.

Azkenik, Ramiro Gonzálezek zehaztu du, baita ere, Arabako Foru Aldundiak martxan jarritako proiektua Francoren diktaduraren biktimei buruzko bi datu base desberdinak batzeko. Lehenengoa UPV-EHUko ‘Valentín de Foronda’ Gizarte Historiaren Unibertsitate Institutuak egindako dokumentu funtsa da. Bigarrena da ‘Relatos de represión en Álava. La Oficina de Atención a las Víctimas’ izeneko txostena. UPV-EHUko Historia Garaikidearen Sailak egin du, 2017an Arabako hainbat herritan bulego bat zabaldu ondoren, zeinak errepresio frankista jasan zuten pertsona haien eta beren senideen lekukotasunak bildu baitzituen.

Bateratutako datu base baterako proiektu horrekin lortu nahi da “ikerkuntza hauetan identifikatutako pertsona errepresaliatuak Nazio Batuek ezarritako giza eskubideen bortxaketen kategoria desberdinei atxikitzea, Gogora Institutua gai horren inguruan garatzen ari den zuzentarauen eta sailkapenaren arabera”, esan du azkenik diputatu nagusiak.